

EUSKAL HERRIKO KLAUSTROAK*

Sorreratik, kalostrak monasterioetako elementu nagusia izan ziren; han bizi zen fraideen eguneroko bizitzaren bihotza. Kalostraren inguruan kokatzen zirelako, hara jotzen zuten elizak, kapitulu-gelak, jantokiak, liburutegiak, sukaldeak eta monasterioko logeak. Monasterioetako erlijio gizon-emakumeen bizitza kalostren inguruan antolatzen eta garatzen zen. Horren kariaz da nabaria ikus daitekeen sinbologia, erlijioari eta espirituari dagokiena.

Kalostrak, ordea, ez ziren soilik monasterioetako gunerik garrantzitsuenak. Katedral eta kolegio-eliza askotan ere berebiziko garrantzia izan zuten, izan ere, erregelaren bati jarraitzen zioten kalonjeek beren eguneroko bizitza kalostraren inguruan antolatzen baitzuten.


Kasu guztietan, kalostra, hiri sakratu gisa antolaturik, aparteko tokia zen. Espirituaren sinbologia batean, bada kalostran Apokalipsiako Jerusalem Urdina ikusten duenik, bertako erdiko gunean gurutzatzen baitira espaziozko eta denborazko koordenadak, Horregatik, seguru asko, kalostra *“paradisus”* edo paradisu izenez zen ezaguna. San Bernardok berak idatzi zuen: *“Vere klastrum est paradisus”*. (Kalostra, benetan, paradisia da).

* ELKARGI S.G.R.ren 2004ko egutegitik hartutako hitzaurrea

Bere forma karratu edo angeluzuzena zen, erregularra gehienetan. Kalostrak, beraz, arte sakratu tradizionalaren formarik unibertsalena hartzen zuen. Sicardorentzat, kalostraren lau aldeak hauek dira: *“norberarekiko destaina, munduarekiko destaina, lagun burkoarenganako maitasuna eta Jainkoaren maitasuna”*. Arkitekturari dagokion sinbologian, kalostrak zeruaren eta lurraren arteko batasuna adierazten du, Jainkoarekiko lotura. Erdigunetik ateratzen diren lau bideak puntu kardinaletara zuzentzen dira, bakoitza batera, espazioa bere osotasunean hartu nahian.


Historiaren gorabeherak arren, gure geografian bada kalostira sail ederra, garai eta ezaugarri desberdinetakoak denak. Horiek guztiak gure arkitektura, erlijio, kultura eta arte ondarearen erakusgarri dira, eta horiei buruzko ezagutza areagotzea da, hain zuzen, gaur gure helburua.

Juan Mari Arrizabalaga




1.- BAIONAKO KATEDRALEKO KLAUSTROA (IPARRALDEA)

XIII. mendean eraiki zuten klaustro zoragari hau, hilerria izateaz gain bizitza publikorako erabiltzen zen. Historian zehar profanatu, suntsitu (apaingarriak eta beirateak), eraitsi (laugarren alboa XIX. mendean) eta konpondu egin dute. Erdian ziuuen bilera-lekuko zumarra, elizaren justiziaren uztaia eta harrizko gurutze handia falta dira.




2.- OÑATIKO UNIBERTSITATEKO KLAUSTROA (GIPUZKOA)

Errenazimenduko zientziaren eta aurreko mendeetako basakeriaren arteko borroka irudikatzen duen eraikin adierazgarria dugu hau". Eraikin honek bat egiten du lurarekin, baserrien modura, eta geografian txertatuta dago historian bezainbeste. Gure lurretara ekarritako Errenazimenduko estiloa euskal izaerara egokitu zuen.




3.- MARKINAKO KARMELDARREN KLAUSTROA (BIZKAIA)

Karmeldarren Komentuaren barruan dagoen klaustro hau eraikinaren bihotza da, komentuko elizaren alboan dago eta 1724an inauguratu zuten. Bi aldiz bertan behera utzi behar izan zuten Karmeldarrek klaustroa arrazoi politikoak zirela medio, eta beste hainbatetan berreskuratu zuten komentu-bizitzarako. Santa Teresaren aszesiarekin bat, ez du inolako apaingarririk, baina barrura sartzen den argiak Joan Gurutzeko Santuak erakutsi zion argitasunerako bidea girotzen du.




4.- BILBOKO KATEDRALEKO KLAUSTROA (BIZKAIA)

Bilboko Santiago katedralaren (Euskal Herriko eraikin gotiko zoragarrienetakoa) eranskina den estilo gotiko dekadentistako klaustro hau XV. mendean eraiki zuten. Iparreko hilerrian eraiki zuten elizaren hormarte baten gainean ezarrita dagoen gurutzaduraren albo batean. Karratua da eta sei zati eta hamabi leihate ditu, Tarte angeluzuzenak ditu eta zoko karratuak. Gurutzeria arrunteko estalkia du. Kanpoko aldean merezi du Aingeruaren portada ikusteak.




5.- OÑATIKO BIDAURRETA MONASTERIOKO KLAUSTROA. (GIPUZKOA)

1509tik 1514ra Errege Katolikoaren idazkari eta kontu hartzaile nagusia izan zen Juan Lopez de Lazarragak fundatutako komentua. Fatxadaren soiltasunaren dotoretasunak ezkutuan uzten du Klaratar mojen klausurako komentua. Bertan klaustro xume eta goxo bat, fundatzaileak zuen frantziskotar jarreraren ezaugarri da. Nolanahi ere obra zoragarria da, garai hartako beste hainbat eraikin berezirekin parekatzeko modukoa.




6.- LA OLIVAKO MONASTERIOKO KLAUSTROA (NAFARROA)

Klaustro gotiko hau (XIV. eta XV. mendeetakoak) lehen zegoen XII. mendeko klaustro erromani-koaren ordean egin zen. Klaustroa oso arina da, trazeria duen arkutaria modu egokian erabili dutelako. Leihateen dotoretasuna eta apaindura plastikoaren aberastasuna frantziar gustuaren adierazgarri dira, eta Iruñeko katedralak dituenetara hurbiltzen dira. Mainel eta pilareetako kapitelak, guztiak desbercinak, hori eraiki zen garaietako eboluzio estilistikoaren adierazgarri dira.




7.- OÑATIKO ELIZAKO KLAUSTROA (GIPUZKOA)

Gotiko flamigero estilokoa den Pedro Lizarazuren klaustroa, XVI. mendean gehitu zitzaion elizari Zuazolako Merkatuaren ekimenez. Leihate, arku eta bobeda ikusgarriak izateaz gain, ibaiaren gainaldean zubietan bermatuta eraikia dagoelako nabarmentzen da. Pinakuluak tartekatuak dituen gailurreria dotorea du klaustroak goiko aldean.




8.- IRANTZUKO MONASTERIOKO KLAUSTROA (NAFARROA)

XII. eta XVI. mendeen artean eraiki zuten, obrak luze iraun zuten eta, horren ondorioz ikusten da hormarte batean agerian dagoen zistertar estilo garbienetik gainerakoan nagusitzen den estilo gotikorra nola igaro den. Alderdi zaharreneko erdi-puntuko galerien ondoren arku puntadunak ikus daitezke trazeria landuz ornituak. Kapiteletan eskulturak dituzte, eta estilo gotiko bete-betekoak diren mensulak eta gako propioak. Tenplete hexagonal gotikoak babesten du konketaren iturria.




9.- BARRIAKO MONASTERIOKO KLAUSTROA (ARABA)

Zistertarren lehenengo fundazioa XII-XIII mende ingurukoa bada ere, eraikuntza hori XV. mendearen amaierakoa eta ondorengoetakoa da. Monasterioan egindako berrikuntza baino geroago egin zen klaustroa. Xumea eta apaindura gutxikoa, herritarren artean oso ezaguna da. Bi altuera ditu. Beheko solairuan 24 arku beheratu ikus daitezke fuste ildaskatuko zutabe mozkoteetan. Zurak interes berezia du klaustroa estaltzen duen habeterian.




10.- ZIORTZAKO KOLEGIATAKO KLAUSTROA (BIZKAIA)

Bizkaiko errenazimentu garaiko klaustro bakarra den obra horren dokumentazioa 1560 ingurukoa da. Urte horretan Kolegiatan obrak egiten aritu ziren Miguel de Bolibar eta Juan de Olate. Arkuarteetan Santiagoko bidean zegoela gogorarazten diguten gurutze florentziarrak eta erromesen maskorak ikus daitezke. 1980tik aurrera egin zen berrikuntzaren ondorioz, biziberritu egin dute Zistertarrek.




11.- DEBAKO ELIZAKO KLAUSTROA (GIPUZKOA)

Xumea baina nortasun handikoa den klaustro hori Gipuzkoako aspaldikoena da. Traza gotiko berantiarrean eraikitakoa da (1510), leihateak ditu eta errenazimendu garaiko trazeria konplexu eta dotoreak aberaska moduan (1547). Gurutzeria xumeko bobedekin estalia dago tenpluaren alde paraleloetan, eta konplexuagoak dira perpendikularretan. Goiko aldean trazeria ildaskatua duten 16 leilhateko galeria interesgarria du, alde bakoitzean lau.



12.- TUTERAKO KATEDRALEKO KLAUSTROA (NAFARROA)

Klaustro monumentala eta balio artistiko handikoa, erromatar estilo garbian eraikitakoa XII. mendearen amaieran. Lehengo meskitaren aztarnak ditu. Erdi-puntuko bederatzi arku ditu alde laburrenatan eta hamabi handienetan, horiek zutabe bikoitz eta hirukoitzetan bermatzen dira alternatiboki. Interes herezia dute agian mudejarrek landu zituzten kapitulek, erlijio agerraldiekin, eguneroko bizitzakoekin eta naturaltasunerako joera duten eszenekin.



13. - SAN TELMOKO KLAUSTROA, Donostia (Gipuzkoa) (1544-1562)

Euskal Herriaren historiari begira dagoen begi honek bere hormek osatzen dituzten harrien artean gure historiako atal ugari gordetzen ditu: gotiko garaiko bertikaltasuna, Errenazimenduko sinesmen zaharren zaharberritzea, erlijioari darion intsentsu-usaina, sakon errotutako borrokazaletasunaren artileria, kultur ondarea, guztia ere museo bihurtua gaur egun.